



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 17a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala erretira dezan Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen dekretua. Sergio Sayas López jaunak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen da, eta orobat aitortzen da erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uholdeetarako jarduketa-protokolo bat susta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzea dezan. Cristina Altuna Ocho-torena andreak aurkeztu du (12. or.).

—Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (13. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu apustu egiten duela abeltzainen bizimodua mantentzen dadila zainduko duen abeltzaintza-eredu baten alde, lehenetsia emanen diona lurralde-egituratzaile den landa-garapenari eta populazioa finkatzeari. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Antzingo alkateari, udalbatzari eta herri osoari, eremu mistoan sartzea eskatzeagatik jasotako irain larriengatik. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie iragan larunbatean Iruñean izandako istiluetan kaltetutakoei. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatu edo/eta gaitzetsi egiten baititu iragan larunbatean Iruñean izandako indarkeriazko istilu bidegabeak. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiatarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek jarduerarako alde aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko oinarritzko araudi orokor indardunarekin bat. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren aitzinean dagoen Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (16. or.).
- Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren egungo araubidea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaia ikusita Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (17. or.).
- Galdera, emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (17. or.).
- Galdera, laneko arriskuei buruzko proiektuak gauzatzeko irabazi asmorik gabeko elkarreentzako dirulaguntzaren 2017ko deialdiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (18. or.).
- Galdera, lanaren banaketari buruzko Kongresuaren antolamendua dela-eta Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betearazte aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Lekunberrin, Iturriburu kaleko 8. eta 10. zenbakietan, Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Prezio Tasatuko Etxebizitza gisa sailkatutako etxebizitza-blokeari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Mercadonak Mena Supermercados xurgatzean sortutako bategiteari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Osasunerako Eskola-sarearen bigarren jardunaldiak egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, beka eskatu duten familiei igorritako gutunari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Pedro de Atarrabia DBHIko British Council-eko ikasleen garraioa ez mantentzeko arrazoiaiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzako ikasleen ingelesezko murgiltze-asteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, ikastetxeen proba diagnostikoei edo bestelako ebaluazio-tresnei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunetakoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuaren bitartez, Espainiako Gobernuak 2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata 707,70 euroan finkatu zuen.

Errege dekretu horren bigarren xedapen iragankorraren 1.a) idatz-zatiak ezartzen du aparteko izaera duela 2016ko lanbide arteko gutxieneko soldatan egindako % 8ko igoerak, eta haren aplikaziotik kanpo uzten ditu "zenbait prestazioren zenbatekoa zehazteko edo zenbait prestazio, onura nahiz zerbitzu publiko eskuratzeko errentamailaren adierazle edo erreferentzia gisa lanbide arteko gutxieneko soldata erabiltzen duten autonomia erkidegoek, Ceuta eta Melilla hiriek eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateek emandako arauak, errege dekretu honek indarra hartzeko unean indarra dutenak, autonomia erkidegoek... berariazko xedapena eman ezean".

Aipatutako xedapen iragankorraren 2. idatz-zatian ezartzen da ezen, aurreko idatz-zatiak (jada transkribatu dena) aipatzen dituen kasuetarako, eta kontrako xedapen edo akordiorik ez badago, abenduaren 29ko 1171/2015 Errege Dekretuaren bitartez 2016rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata erabili beharko dela, dagozkion igoerekin.

Nafarroan, 2004tik, maiatzaren 20ko 127/2003 Foru Dekretuaren bitartez, lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako alargun-pentsioak haren zenbatekoraino osatu izan dira, dela alargun-pentsioen atxikipearen zenbatekoa alde aurretik ordaintzeko sistema baten bitartez, dela kenkari bakarraren sistema erabiliz.

Espainiako Konstituzioak ezartzen duenez, botere publikoen betebeharra da gizarte laguntzako araubide bat mantentzea, beharrian egoe-

retan prestazio aski bermatuko duena. Horri dago-kionez, prestazio horiek erkidego bakoitzeko bizitzaren kostuaren arabera egokitu behar dira; hori dela eta, Nafarroako Gobernuaren betebeharra da Estatuko legediak asetzen ez dituen desberdinkeria-egoerei konponbidea ematea.

Egoera horietako bat da, zalantzarik gabe, gure erkidegoko alargunena. Kolektibo hori, oro har, kotizatzerik izan ez duten emakumeek osatuta dago; gizarte modernoaren garapenerako eta lortutako ongizate-mailarako funtsezko zutabea izan diren emakumeek, hain zuzen.

Nafarroako Gobernuak betebeharra du egoera horiei erantzutea eta Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko eta kotizazio gabeko sistemak betetzen ez dituzten hutsuneak betetzea, eta hartara, pertsona bakoitzaren garapen duinerako behar diren zerbitzu, bitarteko eta laguntzak ematea.

Horretarako, Gobernuak eskumen osoak ditu, Nafarroako Foru Eraientza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eta eskumen horiek arautzen dituen abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak jasotzen duten bezala.

Aurreko guztiaren indarrez, foru lege proposamen honen helburua da berariazko xedapen bat ematea, zeinak aukera emanen baitu abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatutako lanbide arteko gutxieneko soldata, 707,70 eurokoa, erreferentzia indize bezala erabiltzeko, kenkari fiskalen bitartez zenbait laguntza kobratzeko. Neurri horren indargarri dira arlo fiskalean eta gizarte prestazioen arloan LORAFNAk aitortu eta Estatua-rekin adostuta dauzkagun eskumenak.

Artikulu bakarra. Aldatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu batetegina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Hogeita laugarren xedapen iragankorra gehitzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarraldia izanen duena.

Hogeita laugarren xedapen iragankorra. Alargun-pentsioetarako eta kotizazio gabeko erretiro-pentsioetarako erreferentzia izanen den lanbide arteko gutxieneko soldata.

Legegintzako foru dekretu honen 68. eta 68 bis) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, joko da alargun-pentsioak osatzeko erreferentzia indize gisa baliatzen den lanbide arteko gutxieneko soldatak, artikulua horietan jasotako moduan, abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak finkatutako 707,70 euroko zenbatekoa izanen duela. Erreferentzia indize hori atzeraginez aplikatuko da 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Xedapen gehigarri bakarra. Kotizaziopeko gainerako pentsioen arautzea.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat aurkeztuko du Espainiako Gobernuak urtero finkatzen dituen lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako kotizaziopeko gainerako pentsioak osatzeko, soldata horren pareko izateraino.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala erretira dezan Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen dekretua.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala erretira dezan Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeko kide Sergio Sayas Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan administrazio publikoan euskararen erabilera arautzen duen dekretuaren zirriborria.

Nafarroako Gobernuak prentsaurreko batean aurkeztu du administrazio publikoan euskararen erabilera arautzen duen dekretuaren zirriborria, zeinaren bidez, de facto, hizkuntza hori Erkidego osoan inposatzen baita, eta hura hitz egiten ez dutenei eragozten baitie administrazioko lanpostu batera iristea, lekualdatze lehiaketa bat gainditzea edo burutza bat lortzea, edozein dela ere bizi diren eremua.

Hizkuntza horri ematen zaion gehiegizko balorazioak (ia bederatzi urteko lanbide esperientziaren parekoa, askotan, eta unibertsitateko prestakuntzari ematen zaion puntuaziotik gorakoa) ezinezko bihurtzen du, praktikan, hura hitz egiten ez dutenak berdintasun-baldintzetan lehiatzea.

Nafarroako errealtate soziolinguistikoak, bertako herritarretatik % 13 baino gutxiagok hitz egiten baitute jarriotasunez euskaraz, ez du justifikatzen hizkuntza horrek lekualdatze-lehiaketetan, burutzak betetzean edo foru administrazioarako sarbidean izanen duen puntuazio mardula.

Gainera, aipatu dekretuaren 23. artikulua eragina du, halaber, administrazio publikoarekin kontratatu nahi duten enpresa guztietan, eta praktikan bultzatu egiten ditu errealtate sozialak justifikatzen ez duen langile elebidun kopuru bat kontratatzea.

Beste alde batetik, 1. kapituluak atea irekitzen du arbitrariedade egoteari administrazio lanpostu elebidunak zehazterakoan, zeinetan euskara meritu gisa konputatzen nahitaezkoa izatera iragaten baita.

Esate baterako, lekualdatze-lehiaketei begirata, eremu ez euskaldunean euskara meritutzat jotzen denean –alegia, nahitaezkoa ez denean–, gehienez ere 9,2 puntuko ebaluazioa izanen du, gaur egun baino 7 puntu inguru gehiagokoa.

Hemen, euskarak balio izanen du administrazioan izandako bederatzi urteko lanbide-esperientziak adina, eta edozein lizentziaturak edo masterrak baino gehiago.

Askoz garrantzitsuagoa izanen da euskaraz jakitea, betetzen den lanposturako prestakuntza edo lanbide-esperientzia izatea baino.

Eremu mistoan eta zerbitzu zentraletan gehieneko puntuazioa 5,52 izanen da. Alegia, lanbide

esperientziako ia sei urteren parekoa, eta karrera edo master batek baino balorazio handiagoa izanen du, halaber.

Eta eremu ez euskaldunean, non % 9 baino gutxiago baitira gauza euskaraz zertxobait hitz egiteko, 2,76 izanen da, lanbide esperientziako hiru urte baino gehiagoren parekoa, eta master batek baino balorazio handiagoarekin.

Antzeko egoera izanen da burutzak betetzeari eta administraziora sartzeko baremoari dagokienez.

Administraziorako sarbideari begiratzen badigu, euskararen puntuazioa puntu guztien % 23rainokoa izan ahalko da, lanpostua eremu euskaldunean badago; % 14koa, eremu mistoan egon edo

zerbitzu zentraletakoa bada; eta % 7koa, eremu ez euskaldunean badago.

Horrenbestez:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio berehala erretira dezala administrazioan euskararen erabilera arautzen duen dekretua, hizkuntza hori hitz egiten duten nafarrei, gehiengoa baitira, eragozten dielako administrazio publikoan lanpostu bat eskuratzea, lekualdatze-lehiaketa bat gainditzea edo burutza bat lortzea, eta gainera de facto hizkuntza-zonifikazioa ezabatzen duelako.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan.

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren

babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Indarkeria matxisten etorkia egitura sozial eta kultural korapilatsu batean datza, eta haren sintoma eta seinaleak gure eguneroko bizitzaren arlo askotan agertzen dira. Emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun ageri-agerikoa ez da gizartearen bilakaeraren ezbehar bat ez eta emaitza ekidinezin bat ere, baizik eta helmuga eta metodo interesatu bat, kementsu borrokatu behar duguna.

Emakumeen desberdintasun eta zapalkuntzarako patroi horiek etengabe zabaltzen dira hedabideetan, horiek dituzten ezin konta ahala aldaera eta euskarri teknologikoetan.

Zenbait enpresaren publizitateak maizegi ahazten ditu pertsonen jardunaren arlo guztiak arautu behar dituzten muga etiko eta moralak.

Hori horrela, Espainiako estatuak oro har, eta Nafarroak, bereziki, egoeraren larritasunaz jabeturik, zenbait lege onetsi dituzte, zalantzarik gabe gizarte zuzenago, gizatiarrago eta berdinzaleago bat eraikitzeko oinarriak ezarriko dituztenak.

Lege horietan (Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorra; Generoko indarkeriaren kontrako

babes integralerako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa; Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun eraginkorraren aldeko 3/2007 Lege Organikoa; Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko 33/2002 Foru Legea) ezartzen denez, ez da zilegi “emakumearen gorputza edo gorputz-atalak berariaz eta zuzenean erabiltzea iragarri nahi den produktuarekin loturarik ez duen objektu soil gisa” (34/1998 Legea, 3.a artikulua, 1/2004 Lege Organikoak aldatua).

Halaber, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak ezartzen duenez, “Foru Komunitatean jarduten duten hedabide sozialetan, tratamenduagatik edo agertzeko moduagatik, emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, arinkeriak tratatzen edo bultzatzen duten publizitateko edukiak eta iragarkiak egitea eta zabaltzea saihestuko da, bai eta emakumeen duintasuna urratzen duten mezu berariazkoak edo esan gabekoak dituztenak ere.”

Ulerturik herritarrak direla –eta kasu honetan, gobernuko erakundeetan dituzten ordezkariak– zaindu behar dutenak bai legeak bete daitezela bai haien aurka doazen egoeren salaketa, atzeman dugu kirolaren munduan ohiko jardun bat badagoela, aipatutako berdintasun-legeen aginduak nabarmen urratzen dituenak.

Kontua da kirol ikuskizunak antolatzen edo finantzatzen dituzten enpresek emakumeak jartzten dituztela leku ikusgarrietan, beren produktuak iragarri edo ikusleen arreta erakartzeko, nahiz eta emakume horiek inolako loturarik ez izan kasuko kirol jarduerarekin edo produktuarekin, eta gainera, lehen eginiko arau-aipamenei dagokienez, legekontrakotasunean erorita.

Halatan, edertasun estereotipatuko emakume gazteak agertzen dira lasterketa askotako irteera edo helmugetan (oso ezagunak diren bi adibide jartzeko), podiumetan eta promozioetan, ikuskizuna izan aurretik, egin bitartean eta ondoren.

Toki mailan jende askok onartu ditu eredu horiek kritikarik egin gabe, nazioko zein nazioarteko goi mailako kirol lehiaketetan hala ikusten dituelako (motoziklismoa, automobilismoa, txirrindularitza eta are Joko Olinpikoetan ere). Baina hori ere aldatzen hasi da planetako toki askotan. Esate baterako, aitzindari bat dugu arlo honetan “Tour

Down Under” australiar txirrindularitza-proba, edo “Challenge”, Mallorcakoa.

Horiek horrela, zilegitasunaren aurkako praktika hori salatu eta aukera handi bat eskaintzen dugu nazio mailako aurrekari bat ezartzeko eta ohitura bidegabe eta laidogarri hori desagerrarazteko, emakumea apaingarri batekin parekatzen duelako.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bidez ekitaldiak azter ditzan, eta ekidin ditzan edozein administrazio, erakunde autonomo eta bestelako ente eta enpresa publikoek laguntza publikoak eta babes publikoak ematea Nafarroan eginiko kirol-txapelketa eta ekitaldiei, haietan emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa edo emakumearen gaitasunak gutxietsiz erabiltzen baldin bada. Betiere begiratuko du arlo orotan emakume-irudi iraingarriak desager daitezzen.

2. Zaindu dezan berdintasun-legeak betetzen direla; bereziki, 14/2015 Foru Legea, aurreikusten diren zehapenak ezarriz arau-haustearen erantzule diren erakunde edo enpresei, eta praktika horri amaiera emateko behar diren baliabideak eta bitartekoak erabiliz.

3. Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari eska diezaien azterlan diagnostiko bat prestatzea Nafarroan laguntza eta babes publikoak jasotzen dituzten kirol ekitaldi eta txapelketetan emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa erabiltzeari buruz, eta Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legean behar diren aldaketak susta ditzan, kirol ekitaldi eta txapelketetan emakumearen gorputza apeu gisa erabiltzearen debekua sartze aldera.

4. Ildo horren aldeko irizpide zuzentzaileak sar ditzan “Nafarroako kirol jokoetan eta kirol federatuen emakumeek duten egoera” azterlanean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Eleduna: Laura Pérez Ruano

Mozioa. Horren bidez, Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen da, eta orobat aitortzen da erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen baita, eta orobat aitortzen baita erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Iruñerriko Mankomunitatearen alde eta hura azkentzearen aurka, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iruñerriko Mankomunitatea 1982an sortu zen –garai hartan, Ur Mankomunitate gisa–, hainbat toki korporazioen lankidetzaren ondorioz, Iruñeko Udala buru zutela eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Guztien helburua zen irtenbide bat ematea uraren arazoari Iruñerriaren esparruan.

Hurrengo urteetan eskualdeko herrietako jendeak, baita sartzeko zailtasun handienak zituzten landa guneak ere, irrikan zeuden Mankomunitatean sartzeko, horrekin amaituko zirelako ur-horniduraren eta -kalitatearen murrizketak eta arazoak etxeetan, abeltzaintzan eta nekazaritzan edo industrian.

Urratsez urrats, eskualdeko biztanle gehien-gehienek ur-hornidurako zerbitzu bikaina eduki ahal izan dute, kalitatearen, zerbitzuaren zein kostuaren aldetik.

Ur-horniduraren prestazioa burutu zen uraren ziklo integralaren kudeaketarekin, hondakin urak tratatu eta arazteko sistemak gehituta, unean uneko aurreratuenak baitziren.

1987an Mankomunitateak bere gain hartu zuen, udalerrien lagapenaren bidez, hiri hondakin guztien bilketa eta kudeaketa, baldintza izanik populazio gune guzti-guztietan zerbitzu berbera ematea.

Eginkizun komun berri horren ondorioz abian jarri ziren hondakinak tratatzeko lehen zentroak, eta konposterako eta balorizaziorako plantak.

Eskualdeko udalerrietan hirigintza-garapenek aurrera egin ahala, 1999an Mankomunitateak bere gain hartu zuen hiri garraioaren kudeaketa. Hala, “villavesa” sare bat eratu zen, 17 udalerrri hiriburuaren erdialdearekin lotzen dituen, zerbitzu- eta maiztasun-baldintza arazoizkoetan.

Mugarri horrek halaber ekarri zuen kudeaketa publikoko eredu bat abiaraztea, Nafarroako Gobernuak babestuta eta horretarako prestatutako lege baten gerizpean.

Lorpen horiek guztiak ahalbidetu dituen lan sistemaren oinarriak izan dira kide diren udalerrietako ordezkari publikoen parte hartzea eta elkarrikeria. Bakoitzaren osaera, tamaina edo eginkizunak ez dira oztopo gairik izan, kudeatutako zerbitzu publikoaren erabiltzaileen mesederako erabakiak hartzerakoan.

Berriki jakin dugu Nafarroako Gobernuak aurreikusi duela entitate hori azkentzea, toki-maparen erreforma dela-eta.

Aurreikuspen horri erantzuna eman zion Iruñerriko Mankomunitateko profesional tekniko batzuek prestatutako txosten batek. Bertan adierazten zenez, “egin gogo den azkentze hori ez dago teknikoki funtsatuta” eta “ez dago desegiteko arrazoirik, eta ez da frogatzen haren titulartasuneko zerbitzuak ematen jarraitzeko ezintasunik”.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzea, eta orobat aitortzea erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.

2. Iruñerriko Mankomunitatea mantentzea, haren esparruan bizi diren pertsona guztiei berdintasun-baldintzetan kalitatezko zerbitzuak bermatzen dizkien entitate gisa; eta, ondorioz, aipatu entitatearen azkentzea bazter uztea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTE-EK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Osasun Mentalaren Foroak berriki aurkeztu du "Nahasmendu mental larria eta osasun fisikoa. Nafarroako egoera eta hobetzeko proposamenak"

izeneko azterlana, martxoaren 7ko Osasun Batzordean zuzenean ezagutu ahal izan genuena.

Azterlanak agerian uzten du gaixotasun fisikoak, bereziki kronikoak, areagotu egiten direla nahasmendu mental larria duten pertsonengan. Talde hori osatzen duten pertsonak eskizofrenia, nahasmendu bipolarra edo bestelako psikosiak dituzte, eta heriotza goiztiar handiagoa, ekidin daithekeena, jasaten dute, gaixotasun fisikoen ondorioz, haien bizi-itxaropenean 20 urte inguruko murrizketa eragiten baitute.

Pertsona horietatik hiru laurdenean, gutxi gorabehera, gaixotasun fisiko kroniko bat dute, gutxienez ere; ohikoenak dira diabetesa, obesitatea, arnas-gaixotasun kronikoak eta kardiobaskularrak eta zenbait minbizi.

Eta arriskua areagotzen duten beste faktore batzuk ere badira: gaixotasunaren gaineko kontzientzia txikia dute; gutxiagotan joaten dira prebentzio-kontsultetara; eta joera txikiagoa dute osasuna zaintzeko, osasun fisikoari dagozkion arazoengatik osasun-zerbitzuetara joateko eta agindutako tratamendua jarraitzeko. Horri guztiari gehitzen zaizkio gaixotasun mentalak berezko dituen faktoreak, bai eta zenbait psikofarmakoren eragina ere, arrisku kardiobaskularra areagotzen ahal dutelako.

Nafarroako oinarritzko laguntzako datuen arabera, gure erkidegoan eta 2013an, 14 urtetik gorako biztanleen artetik 3.427 pertsona ziren nahasmendu mental larria zutenak: 2.078 eskizofrenia zutenak, eta 1.385, nahasmendu bipolarra eta

bestelako psikosiak zituztenak. Horiek populazioaren % 1 inguru ziren.

Osasun Mentalaren Foroak datu esanguratsuak aurkeztu zituen, populazio orokorrarekin alderatuak: tabakoaren kontsumoak gainerako populazioarena bikoizten zuen (% 46,2, % 22,3ren aldean); nahasmendu bipolarra zuten gaixoen % 36k hipertentsio arteriala zuten, populazio orokorraren % 26ren aldean; gaixo bipolarren % 56,4k kolesterol altua dute, % 25-30en aldean; obesitatea nabarmen ageri da eskizofrenian, % 43,3k baitauka, % 25en aldean; diabetesak eta arnas-gaixotasun kronikoek maiztasun bikoitza dute (diabetesarekin % 12,2, %6-7ren aldean; arnas-gaixotasun kronikoekin % 4,2, % 2ren aldean).

Azpitarratzekoa da sindrome metabolikoa. Konbinaketa bat da, presio arterialaren maila altuak, obesitate abdominala, odoleko glukosa eta lipidoen alterazioa biltzen dituena, eta gaixo mental horien % 43k zuten, populazio orokorraren % 27ren aldean. Sindrome metabolikoa edukitzeak bikoiztu egiten du miokardio-infartuaren arriskua.

Abusuzko alkohol-kontsumoan populazio orokorraren % 4,4 sartzen da; baina, aldiz, nahasmendu mental larria dutenen % 9,2. Faktore hori lotuta dago gaixotasun hepatikoekin, bihotzekoekin, metabolikoekin, eta minbizi mota batzuekin. Halaber, lotuta dago harreman sozial eta familiarren disfuntzioekin eta lan- zein trafik-istri-puen arrisku handiagoarekin. Era berean, lotuta egoten da bazterketa-arrisku handiagoa dakarten arazo sozial askorekin.

Azterlan horren emaitzen argitan, Osasun Mentalaren forotik zenbait proposamen eta iradokizun egin dira, ondotik datorren erabaki-proposamenean biltzen direnak:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du benetan gara dezan Osasun Planean nahasmendu mental larriari dagokionez biltzen dena; bereziki, nahasmendu mental larria duten gaixoen autozainketa-programa eta nahasmendu mental larrirako arreta integratuaren programa.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, eta zehazki Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza, antolamenduneurri bereziak presta ditzan gaixotasun mental larria duten pertsonen osasun fisikoa hobetze aldera, helburua izanik detekzio goiztiarra hobetzea eta arrisku faktoreak murriztea, kontuan hartuz Osasun Mentalaren Foroak emandako gomendioak.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, eta bereziki Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza, behar diren neurriak eta protokoloak sar ditzan Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuen Zorroan, gaixotasun mental larria duten pertsonen osasun fisikoa hobetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gaixotasun mental larriak dituzten pertsonen osasun fisikoaren gaineko ikerketa lagundu eta susta dezan, helburua izanik pertsona horien heriotza-tasa eta gaixotze-tasa murriztea eta bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea. Azken finean, osasun arloko desberdintasunei aurre egitea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Bakartxo Ruiz Jaso, Tere Sáez Barrao, María Chivite Navascués, Javier García Jiménez eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da uholdeetarako jarduketa-protokolo bat susta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita uholdeetarako jarduketa-protokolo bat susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeen eledunaren ondoko Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2015eko otsailean Ebro ibaiak sorrarazitako uholdeek ziurgabetasuna eragin digute. Izan ere, eratu den Ebroko Foroan gaia aztertze gogoa dute, baina atera daitezkeen konklusioak berandutuko direnez, beharrezkotzat jotzen dugu, eta hala

egiaztatu dugu ukitutako komunitateekin eta beste erakunde batzuekin, Nafarroako Gobernuak lan batzorde bat sustatzea, foroaren paralelo, uholde kasuetarako jarduketa-protokolo bat ezartzeko, gure ustez erabilgarria eta justua izanen baita ukitutako guztientzat.

Hori guztia, irtenbide ekitatibo, garden eta azkarrak bilatzeko, ahalik eta eraginkortasun handiena lortuz kosturik murriztenaren bidez.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Jarduketa-arauak ezartzea, bai alertarakoak bai uholdeen ondoren erabiltzekoak ere, Nafarroako Gobernuari, udalei eta ureztatzaileen komunitatei zuzenduak.

2. Bateratzea, bidezkoa bada, behar diren tasazio guztiak. Horretarako erabili ahalko litzateke ureztatzaileen komunitateendako zerbitzua, INTIAN jadanik eratua dagoena.

3. Komunikazio guztiak bateratzea, bai Gobernuak ukitutakoei zuzenduak, bai ukitutakoek Gobernuari zuzenduak ere.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia bateratzea, aurkeztu eta zuzentzeko unean hura berrikusteko aukera egonda.

5. Kaltea konpontzeko prozesuan parte hartzea eta hura begiratzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzen.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2017ko martxoaren 9an emakumezkoen kirolaren sustapenari buruzko jabeldura izan zen. Ber-

tan agerian geratu zen urrats gehiago egin behar zirela, kirolean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren bila aurrera egiteko.

Erronka nagusien artean nabarmentzen da emakumezkoen kirola ikusarazteko beharra. Ildo horretan urratsak egiteak ekarriko luke babesleen bilaketan aurrera egitea eta, beraz, emakumezkoen kirol proiektuen sustapenak behar duen finantzaketan ere bai.

Jabelduran azaldu zen bezala, babesleek beren inbertsioaren itzulera bilatzen dute. Askotan, publizitate eta marketing estrategia errentagarriak izaten dira, beraien marka sustatu eta balizko bezero gehiago eskuratzeko. Informaziorik gabe babesleak ikusarazten ez direnez, finantzaketa ez da iritsiko. Eta dirurik gabe ez da egonen emakumezkoen kirolak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaion tratamenduari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hedabideetan emakumezkoen kirola ikusarazteko pizgarri izan diren neurriak har ditzan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko jabeldura erretiratu duela. Jabeldura Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean

darabilen politika orokorrari buruzkoa zen, eta 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu apustu egiten duela abeltzainen bizimodua manten dadila zainduko duen abeltzaintza-eredu baten alde, lehentasuna emanen diena lurralde-egituratzaile den landa-garapenari eta populazioa finkatzeari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du apustu egiten duela abeltzainen bizimodua manten dadila zainduko duen abeltzaintza-eredu baten alde, lehentasuna emanen diena lurralde-egituratzaile den landa-garapenari eta populazioa finkatzeari, nazioko nahiz nazioarteko inbertsiogileak dituzten enpresa-sozietate handien etekinen aldean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen ditu NPEren hurrengo erreforma egiten denean lan egin dezaten abeltzaintza-eredu jasangarriak lortzeko, apustu egiten dutenak kalitatearen alde, ezen ez gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-inplikazio handiko eredu agroindustrialen alde.

3. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du hainbat autonomia erkidegotan sektorearen parte

handi batek (abeltzainek, nekazaritzako sindikatuek) eta gizarte zibileko erakundeen ordezkariak adierazitako kezka, behitegitzar hori instalatzeak izan ditzakeen ondorioak direla-eta, eta elkartasuna adierazten die.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du foru erkidegoko esne-sektorearen lehiakortasuna mantentzearen alde lan egin dezan, eta Noviercas proiektuak foru erkidegoan izanen lukeen inpaktua azter dezan, horrek izanen bide dituen eragin negatiboak arintzeko neurriak ezartzeaz gain.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazpen hau ofizialki jakinaraziko die Nafarroako Gobernuari, Soriako Diputazio Probintzialari, Gaztela eta Leongo Batzarreko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailari eta Espainiako Gobernuko Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari”

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Antzingo alkateari, udalbatzari eta herri osoari, eremu mistoan sartzea eskatzeagatik jasotako irain larriengatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Antzingo alkateari, udalbatzari eta herri osoari, jasotako irain larriengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du panfleto izengabe iraingarriak banatzea ideia politikoak hedatzeko tresna gisa, eta lurralde honetako aniztasun politikoa errespetatzen duten eztabaidak egitearen alde agertzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak errespetatu egiten du Antzingo Osoko Bilkurak gehiengoz hartutako erabaki demokratikoa, Euskararen Legean ezarritako eremu mistoan sartzea eskatzekoa.

4. Nafarroako Parlamentuak berriro dio euskara gure erkidegoko hizkuntza bereki bat dela, Antzingo Udalak oraintsu onetsitako mozioan esaten den bezala, eta euskararen erabileraren eta garapenaren aldeko politiken alde agertzen da.

5. Nafarroako Parlamentuak pertsonen arteko bizikidetasunerako dei egiten du, horien ideologia eta jatorri kulturala alde batera utzita, horiek Nafarroako gizartearen aberastasunaren eta aniztasunaren isla besterik ez dira-eta.

6. Adierazpen instituzional hau Antzingo Udalari igorriko zaio”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie iragan larunbatean Iruñean izandako istiluetan kaltetutakoei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkie istilu horietan kaltetutakoei. Bereziki, indarkeriazaleen ekintzetan zauritutako herritarrei, alde zaharreko herritarrei eta Iruñeko erdigune historikoko dendetan eta ostalaritza-establezimenduetan lan egiten dutenei eta horien jabeei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa helarazten dio eta zorionak ematen dizkio Polizia Nazionalari, bere jardun eraginkor eta bikainarekin ekidin baitzuen Iruñeko erdigune historikoan kalte handiagoa jasatea pertsonen eta ondasunen.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du gertakariak eta gertakarien eragileak ikertzea, Justiziaren esku jarriak izan daitezen”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuia edo/eta gaitzetsi egiten baititu iragan larunbatean Iruñean izandako indarkeriazko istilu bidegabeak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Zeharo arbuia edo/eta gaitzestea iragan larunbatean, martxoaren 11n, manifestari-taldeek eragindako istilu bidegabeak, Iruñeko hiria lekuri ez duten iraganeko garaietara daramatenak.

2. Indarkeriazko estrategia horiek salatzea; izan ere, herritarren arteko bizikidetasuna hautsi nahi dute eta alarma soziala sortzen dute, hiri honen gehiengo sozialaren borondatearen aurka.

3. Elkartasuna adieraztea kalte materialak edo pertsonalak zuzenean nahiz zeharka pairatu zituztenei.

4. Gure hirian eta gure erkidegoan bizikidetasun libre eta baketsu bat sustatzearekin dugun konpromisoa adieraztea, gure gizartean indarkeriazko jarrera oro edo gorrotoa sustatzen duen jarrera oren aurkakoa baita.

5. Adierazpen hau Iruñeko Udalarari helaraztea”

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek jarduerarako alde aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko oinarrizko araudi orokor indardunarekin bat.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2017ko martxoaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek jarduerarako alde aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko oinarrizko araudi orokor indardunarekin bat”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketari dagokionez, instalazio horiek jarduerarako alde aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko oinarrizko araudi orokor indardunarekin bat”

Iruñean, 2017ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren aitzinean dagoen Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren aitzinean dagoen Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarro-

ako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak monolito bat inauguratu zuen 2016ko abenduaren 3an Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren aitzinean, Nafarroako Erresumaren omenez. Kultura Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuari zer kostu ekarri dio monolito horrek?

– Inauguratu zen monolitoaren grabatuaren eta Errege Artxibo Nagusiaren aitzinean egun dagoenaren artean nabari den aldaketak inolako kostu gehigarriarik sortu al du?

– Norena zen abenduan inauguraturiko monolitoko testua ontzat emateko ardura?

– Aldaketak aldaketa, frantsesezko testuan ez da “erreginak” hitza agertzen. Zergatik? Gobernuak ba al du monolitoa berriro aldatzeko asmorik, rois et reines ager dadin?

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren egungo araubidea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaia ikusita Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren egungo araubidea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaia ikusita Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Honako hau jakin nahi dut hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren gaur egungo araubidea dela-eta Konstituzio Auzitegiak 2017ko otsailaren 17an emandako epaiari buruz:

Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa du sortu den problema konpontzeko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriei buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Sexu askatasunaren aurkako delituak % 33 igo direla ikusita, Nafarroako Gobernuak zeharkako zer neurri hartzeko asmoa du emakumeek pairatzen duten indarkeria hori ekiditeko? Zein esparrutan eta zein epetan hartuko ditu? .

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, laneko arriskuei buruzko proiektuak gauzatzeko irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru-laguntzaren 2017ko deialdiari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, laneko arriskuei buruzko proiektuak gauzatzeko irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru-laguntzaren 2017ko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako Departamentuko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan martxoaren 2an argitaratu zen 173E/2017 Ebazpena, Politika Ekonomiko eta

Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, laneko arriskuei buruzko proiektuak gauzatzeko irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako diru-laguntzaren 2017ko deialdia onesten duena.

Ebazpen horrek –zeina, zioen azalpenaren arabera, Nafarroako Lan Osasunaren 2015-2020 III. Planaren ildotik emana baita– dio xede duela laneko segurtasun eta osasun baldintzak etengabe hobetzea eta laneko arriskuen ondoriozko osasun-kalteak gutxitzea. Ebazpenean 850.000 euroko gastua baimentzen da (gastu hori kasuko kontu-sailean dago jasota).

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Garapen Ekonomikorako Departamentua zer irizpide teknikotan oinarritu da deialdiaren oinarriak ezartzeko?

Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak zer-nolako parte-hartzea izan du oinarri horien prestaketan?

Jasotako eskabideen kudeaketa eta ebaluazio teknikoa nolakoa izanen da? Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak zer parte-hartze izanen du prozesu horretan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, lanaren banaketari buruzko Kongresuaren antolamendua dela-eta Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betearazte aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, lanaren banaketari buruzko Kongresuaren antolamendua dela-eta Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betearazte aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2016ko otsailaren 11n, Parlamentu honek mozio bat onetsi zuen, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitzuen “lana banatzea bultza-

tzeko bideak azter ditzan (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea edo murriztea, aparteko orduak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak egitea), ateratzen diren ondorioak geroago Parlamentu honi aurkezteko”; halaber, “azterlan bat egin dezan administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haiek gauzatzeko aukerei buruz ere, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuekin bat” eta “Nafarroan lanaren banaketari buruzko biltzar bat antola dezan, kreditatutako adituekin, arrakastari buruzko esperientziak zabaltze aldera, behar den lege-esparrua sortzeko, Gizarteko Laneko Departamentuaren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta interesa duten beste eragile batzuen lankidetzara edukita”.

Erabaki hori –zeinak, gainera, Programa-akordioan jasotakoa biltzen duen– onetsi zenetik urtebete baino gehiago igarota, ez dakigu Eskubide Sozialetako Departamentua zer ari den egiten erabaki hori betetzeko.

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu eta, epe motzean, zer ekintzatarako asmoa du, Parlamentu honek onetsitakoa betetzeko eta, zehazki, lan banaketari buruzko biltzar bat antolatzeari dagokionez?

Iruñean, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, Lekunberrin, Iturriburu kaleko 8. eta 10. zenbakietan, Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Prezio Tasatuko Etxebizitza gisa sailkatutako etxebizitza-blokeari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Lekunberrin, Iturriburu kaleko 8. eta 10. zenbakietan, Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Prezio Tasatuko Etxebizitza gisa sailkatutako etxebizitza-blokeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parla-

mentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Lekunberriko udalerrian, herriko sarreran, Iturriburu 8 eta Iturriburu 10 izeneko etxebizitza-blokea dago (1.049 eta 1048 hiri-lurzatiak). Etxebizitza hauek Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Prezio Tasatuko Etxebizitza gisa sailkatu ziren.

– Zein da etxebizitza horien gaur egungo egoera: erabiltzen ari den etxebizitza kopurua eta hutsik dagoen etxebizitza kopurua?

– Hutsik dauden etxebizitzak jabea.

– Etxebizitzak behin betiko tramitazioari buruzko informazioa eta bidalketa-data.

– Egin al da auzokideekin bilerarik sustapenaren egoerari buruz? Zenbat eta zein datatan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Mercadonak Mena Supermercados xurgatzean sortutako bategiteari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Mercadonak Mena Supermercados xurgatzean sortutako bategiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2017ko martxoaren 1ean, Mercadonak, bazkide bakar gisa, egoitza Nafarroako hiriburuan duen Mena Supermercados-ekin bat egin zuen, xurgatze bidez.

Nafarroako Gobernuak ba al zeukan aurretiaz mugimendu horren berri? Xurgatze horrek zein heinetan eragiten dio Nafarroako Foru Komunitateari?

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Osasunerako Eskola-sarearen bigarren jardunaldiak egiteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Osasunerako Eskola-sarearen bigarren jardunaldiak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zergatik ez du egingen Osasunerako Eskola-sarearen bigarren jardunaldirik?

– Departamentuaren ustez, jardunaldi horiek onuragarriak dira?

– Departamentuaren ustez, departamentuan izandako aldaketek ondorio gisa ekar al dezakete gisa horretako jardunaldirik ez egitea?

Corellan, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, beka eskatu duten familiei igorritako gutunari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, beka eskatu duten familiei igorritako gutunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak gutun bat igorri die beka eskatu duten familiei, ikasturte honetarako deialdiaren aurka zenbait errekurso aurkeztu direla informatzeko. Zergatik igorri die gutun hori?

– Departamentuan ohikoa al da gisa horretako gutunak igortzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean egindako aipamenaz gain?

– Legegintzaldi hau abiatu zenetik zenbat aldiz egin da hori? Zein kasutan?

Corellan, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Pedro de Atarrabia DBHIko British Council-eko ikasleen garraioa ez mantentzeko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Pedro de Atarrabia DBHIko British Council-eko ikasleen garraioa ez mantentzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Eskola-jardunaldia astean bi egunetan luzatzen duten Pedro de Atarrabia DBHIko British Council-eko garraiodun ikasleei Hezkuntza Departamentuak zergatik ez die garraioa mantentzen?

Corellan, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lehen Hezkuntzako ikasleen ingelesezko murgiltze-asteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lehen Hezkuntzako ikasleen ingelesezko murgiltze-asteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza Departamentuak zergatik ez du handitu Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ingelesezko murgiltze-astearen eskaintza?

– Aurrekontu-plangintza eta -aurreikuspenak egokiak zirela uste al du?

– 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren eztabaidan jarduera horretarako proposaturiko aurrekontu-igoerak zergatik ez ziren onartu?

– Departamentuaren ustez, astearen prezioa bikoiztea jardueran parte hartu nahi zuten eta erreserban gelditu diren familia guztientzat jasangarria al zen?

Corellan, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, ikastetxeen proba diagnostikoei edo bestelako ebaluazio-tresnei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxeen proba diagnostikoei edo bestelako ebaluazio-tresnei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zer neurri edo jarduketa aplikatu nahi du Nafarroako ikastetxeei proba diagnostikoak edo bestelako ebaluazio-tresna batzuk errazteko?

– Dokumentu horiek nola egokituko dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen errealitatera?

– Zenbat ikasle gelditu ziren proba horietatik bazter 2015-2016 ikasturtean? Zergatik? Zehaztu hezkuntza-etapen arabera.

Corellan, 2017ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera